

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena da, manufatura-enpresa bat baita, izan ere, haragia egiten duen makina bat ekoizten dugu, gero bezeroek erosteko eta hura erabiltzeko.

Gure enpresaren betekizunak hauek dira: produktua diseinatzea, ekoiztea eta entregatzea.

- **DISEINUA:** Hasteko, “Meatchine” makina nolakoa izango den adostu behar dugu denen artean, diseinua, gure produktua ahalik eta erakargarria izateko bezeroarentzat.
- **EKOIZTEA:** Manufaktura-enpresa bat garenez ekoizpena ezinbesteko jarduera da guretzat, eta ondorioz, garrantzitsuena, beraz, ekoizpena bai ala bai guk egin behar dugu, ezin dugu beste batzuen esku utzi, hala nola, piezen fabrikazioa beste enpresa batzuek egitea uzten dugun bezala, adibidez, mikrotxipak. Guk, erositako pieza horiek modu konkretu batean konbinatu behar ditugu gure makina lortzeko eta ekoizpena ondo ateratzeko, gero hura saldu ahal izateko.
- **ENTREGATZEA:** Azkenik, bezeroak produktua eskuragarri izateko entregatu behar diegu, eta horretarako bezeroek garraio-zerbitzu bat daukate erabilgarri, edota dendatik zuzenean etxera eraman ahal dute eskuz, gehien gustatzen zaien moduan egin dezaten

Beste alde batetik, “Meatchine” webgune baten bidez saltzen dugunez ere, denda fisikoen aparte, oso garrantzitsua da online dena kudeatzea, mantentzea eta sustatzea.

- ➔ **KUDEATZEA:** Webgunea kuadetzeko denok ados jarriko gara, produktuaren salmenta ahalik eta errazen izateko, eta horrela kantitate asko saltzeko.
- ➔ **MANTENTZEA:** Gure online denda mantentzeko hainbat informatikari izango ditugu, dena ondo doan ziurtatzeko, arazorik baldin badaude konpontzeko eta produktua arrakastaz saltzen jarraitu ahal izateko
- ➔ **SUSTATZEA:** Webgunea sustatzeko eta ezagunagoa egiteko iragarkiak ipiniko ditugu beste weborri batzuetan, hala nola, “Youtube”-en, “Instagram”-en... Horrela lortuko dugu gero eta pertsona gehiagok ezagutzea gure denda, ondorioz, gehiago salduko dugu eta etekin gehiago izango ditugu.